

2005 – 2015 INBERTSIOEN HAMAR URTEKO PLANAREN

BETETZE MAILAREN EBALUAZIO TXOSTENA

Txingudiko Uren Mankomunitatea IRUNGO eta HONDARRIBIKO hirietako ur eta saneamendu zerbitzuaren kargu egin zen 1990ko urtarrilaren 1ean.

Une hartatik aurrera, helburu batzuk planteatu zituen ur eskariei erantzuteko eta hondakin urak kanporatzeko, jasotzen dituen inguruneari kalterik eragin gabe. Era berean, Plan bat egin zen jarritako helburu hori bermatu ahal izateko obra hidraulikoen programak bideratzeko.

Horretarako, “Behe Bidasoa eskualdeko Ur Hornidura eta Saneamendu Plana” izeneko Plana idatzi zuen, 1993. urtean onartu zena, eta Goi sarean ur hornidura eta saneamendua ziurtatzeko egin beharreko jarduerak finkatu eta programatu ziren hartan.

Honako helburu hauek ezarri ziren zerbitzu publiko horietako bakoitzerako (ur hornidura eta saneamendua):

Ur hornidura: Ur horniduraren helburua da ura kontsumo puntu guztietara zabaltzea eskatutako momentuan, eskatutako emariarekin, beharreko presioarekin eta kontsumorako kalitate egokiarekin.

Saneamendua: Etxe nahiz industria jatorriko hondakin uren eta euri uren hustea ziurtatzea, eta hondakin urak kanporatzea, jasotzen dituen inguruneari kalterik eragin gabe.

Hurrengo hamar urteetan egiten joan ziren eta bukatu ere egin ziren Planean jasotako ur hornidura eta saneamendu obra garrantzitsuenak.

Ur horniduraren helburua bete zen honako hauek eraiki zirenean: Elordiko Edateko Ura Tratatzeko Planta; Elordi, Buenabista eta Errandonea urtegiak; urez elikatzeko hoditeria EUTPtik Hondarribira, eta ura banatzeko sarean hainbat zati hobetu ziren gainera. EUTPtik eskualdeko landa eremu batzuetara egin beharreko hornidura besterik ez zen gelditu gauzatu gabe.

Saneamenduari dagokionean, etxeko nahiz industriako hondakin urak behar bezala hustuko zirela eta jasoko zituen ingurumenari kalterik eragin gabe kanporatuko zirela bermatzeko Goi sarea eraikitze helburua bete egin zen honako hauek eraiki zirenean: Hondakin Uren Araztegia, hodi biltzaile orokorra eta Dunboa, Antzaran, Zubi-Musu, Jaitzubia, Ugalde eta Kateako kolektore orokorrak.

Hondakin Uren Araztegia 2003. urte amaieran jarri zen martxan, ur beltzen isurketa guztiak jasota, eta Dunboa, Jaitzubia, Ugalde eta Kateako kolektore sare orokorra abian zeudela. 2004. urtean bukatu ziren Zubi-Musuko eta Antzarango kolektoreak.

Obra horiek guztiak egin eta abian jarri ondoren, esan zitekeen bukatu zirela Planean aurreikusitako obrak, eta horrenbestez, bete egin ziren halaber, 1993. urtean onartutako Behe Bidasoa eskualdeko Ur Hornidura eta Saneamendu Planean jasotako helburu nagusiak.

Txingusiko Zerbitzuak S.A.k, egoera horren aurrean, eta bere sareetan inbertsioak egiteko beharra zegoela ikusita, “2005-2015 Inbertsioen Hamar Urteko Plana” egiteko beharra planteatu zuen. Etorkizunean premiazkoenak ziren esku hartzeen inbentarioa egingo zen bertan, hartan oinarrituta, ur hornidura, banaketa eta saneamendu sareetan egin beharreko inbertsio berrien planifikazioa eta programazioa gauzatu ahal izateko.

Horretan oinarrituta, hamar urtetan egin beharreko esku hartzeen inbentarioa egin zen, haietako bakoitzari begira beharreko programazioa eta lehentasun maila ezarrita.

2004. urtean onartu zen arestian aipaturiko “2005-2015 Inbertsioen Hamar Urteko Plana”. 56.705.000 €-koa (BEZik gabe) zen haren aurrekontua eta 30 esku hartze jasotzen zituen.

Lau taldetan banatu ziren Planean jasotako esku hartzeak, lehentasun mailaren arabera sailkatuta. Honako Lehentasun maila hauen arabera sailkatu ziren esku hartzeak: HANDIA; HANDIA-ERTAINA; ERTAINA eta TXIKIA.

Lehentasun HANDIA zutenen taldetik, 13 esku hartze guztira, esan daiteke guztiak eginak daudela, honako hau izan ezik:

- Hondarribiko iparraldeko behe ibarrak drainatzea (Itsasargira doan errepedearen eremuan eta hiriguneko ipar-mendebaldean):

Proiektua 2009an idatzi zen, Eusko Jaurlaritzaren URA Agentziarekin (Uraren Euskal Agentzia) batera, eta aurreikusi zen Eusko Jaurlaritzaren eta Txingudiko Zerbitzuak artean egingo zela obra, bakoitzak % 50ean finantzatuta. Urte horietan, ordea, krisi ekonomikoa hasi zen eta Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen esku hartze hori atzeratzea baliabide ekonomikoak izan arte.

Lehentasun HANDIA-ERTAINA zutenen taldetik, 7 esku hartze guztira, esan daiteke guztiak eginak daudela, honako hau izan ezik:

- Hornidura eta banaketa Guadalupeko urtegitik. Obra hori ez zen egin, gerorako utzi baitzen. Egungo egoerari konponbide bat bilatu zaio, eta horrenbestez, nabarmen jaitsi da aipaturiko obra horren lehentasuna.

Proiektua 2008. urtean idatzi zen, baina Jaizkibel-Elordi hornidura obrak lehentasun handiagoa zuenez larrialdietan ur hornidura bermatu ahal izateko, behin-behineko obra txiki bat egin zen Lujunia eta San Telmo urtegiara ur hornidura hobetzeko eta urtegi horien goi eragin eremuetara ur hornidura bermatu ahal izateko.

Aipaturiko Proiektu horren barnean dago “Ur hornidura San Telmo urtegiara” izeneko esku hartzea.

Lehentasun ERTAINA zutenen taldetik, 7 esku hartze guztira, esan daiteke guztiak eginak daudela, honako hau izan ezik:

- Domikoko kanala irazgaiztea. 12.888 metroko luzera duen kanal hori irazgaizteko lana zatika egiten ari da hainbat urtetan, eta kanalaren luzeraren % 83 irazgaiztua dago une honetan.
- Ibaieta urtegiko adar nagusia berritzea. Obra horren % 30 egin dago.

Urdanibia Plaza berritzeko Proiektuarekin berritu egin zen Ibaieta urtegiko hodi nagusiko plaza zeharkatzen duen zatia. Era berean, berritu egin da Santa Elena kaletik doan zatia Dunboako kanalaren gaineko zubitik Urdanibia plazaraino.

Urtegitik Santa Elena zubira doan adar zatia geratzen da egiteko.

- Irugurutzetako zentraleko eraikina eraberritzea. Egin gabeko obra

2012ko maiatzean “Irugurutzetako Uraren Interpretazio zentroa” Aurreproiektua idatzi zen Irugurutzetako zentraleko egungo eraikina eraberritzeko, eta eranskin bat eraikitzeke Uraren Interpretazio Zentro moduan museo gisa erabiltzeko eta ingurua urbanizatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren URA Agentziari (Uraren Euskal Agentzia) kontsulta egin zitzaion Proiektu hori aurrera eramateko baimena lortzeari begira. Erantzun zuten errekaaren ibilgutik 5 metro baino gutxiagora ezin dela inolako esku hartzerik egin, eta horrenbestez, ezin izan zen Proiektu hori aurrera eraman.

Lehentasun TXIKIA zutenen taldetik, 6 esku hartze guztira, esan daiteke guztiak eginak daudela, honako hau izan ezik:

- Lastaolako putzuen hornidura-EUTP. Lastaolako putzuetan hainbat azterketa egin ondoren, lortutako emaitzak ez ditu hasieran aurreikusitako itxaropenak bete eta putzu horien ustiapenak errentagarritasun txikia ematen duenez, ez beharrezko gisa sailkatu zen obra.
- Jamotenea urtegiko hoditeria. Planeko azkenekoetako gisa aurreikusia zegoen obra hau, denboraren joanean ur eskaria handitu zitekeela aurreikusi zelako. Azken urte hauetan, egia da ez dela ur eskaria batere handitu, eta gainera, jaitsi egin da biztanleko ur

hornidura. Era berean, jaitsiera handia nabaritu da industria erabilerako ur eskariari dagokionean, herrialdea jasaten ari den egoera ekonomikoaren ondorioz. Horregatik guztiatik, erabaki zen esku hartze hori une honetan ez egitea eta etorkizunean aztertzea egin behar den ala ez den, egoerak hala eskatzen duenean.

- Irungo eta Hondarribiko sareak elkartzea. Egin gabeko obra
- Ur banaketarako adarraren zatia Araba kalean. Obra hau egitea planteatu zen Kateako industrialdeko ur hornidura indartzeko, eta Plan Nagusian planteatutako Araba kaleko udal bidearekin batera egitea pentsatu zen.

KATEAKO kuartel zaharren ingurua urbanizatu zen bitartean, Araba kaleko 32. zenbakiaren pareraino jarri zen ura banatzeko adarra. Horrenbestez, puntu horretatik hasi eta Aranibarreko tunela arteko zatia geratzen da egiteko.

Gaur egun lizitatzen ari da Araba kaleko zati bateko zoladura hobetzeko obra, eta haren barnean daude ur banaketarako adarraren instalazio lanak zati horretan esku hartzen den bitartean. Harmugarrieta kaleko bidegurutzetik Elatzeta ikastetxea artekoa hartzen du zati horrek.

Horregatik guztiatik, “2005-2015 Hamar Urteko Planean” jasotako obra gehienak egin direla atera daiteke ondorioz, eta horrenbestez, bete egin dira jarritako helburu nagusiak. Zehatz esateko, honako hauek dira betetze mailaren datuak:

1) % 73ko Betetze Maila Esku hartze kopuruaren arabera


- Proiektaturiko esku hartze kop. = 30
- Gauzatutako esku hartze kop. = 22

2) % 64ko Betetze Maila Esku hartzeen zenbatekoaren arabera

- Proiektaturiko esku hartzeen zenbatekoa = 56.705.000 €
- Gauzatutako esku hartzeen zenbatekoa = 36.377.288

Esku hartze horiek guztiak xehe adierazten dituen koadroa aurkeztuko dugu ondoren.

Irun, 2015eko abendua
Errepide Ubide eta Portuetako Ingeniaria



Sin: Pedro Lapazarán Izargain
AHOLKULARIA

2005 – 2015 HAMAR URTEKO PLANAREN BETETZE MAILA

Fitxa zkia.	ESKU HARTZEAK	Lehentasuna	Gauzatze maila	Oharrak
1	JAIZKIBEL – ELORDI UR HORNIDURA	handia	EGINA	
6	UR BANAKETA BIDASOA AUZOARI	handia	EGINA	
7	UR BANAKETA OLABERRIA AUZOARI	handia	EGINA	
14	LUIZIA MEAZURIKO TUNELEAN	handia	EGINA	
15	UR BANAKETARAKO HODITERIA JULIAN GAYARRE KALEAN	handia	EGINA	

2005 – 2015 HAMAR URTEKO PLANAREN BETETZE MAILA

Fitxa zkia.	ESKU HARTZEAK	Lehentas una	Gauzatze maila	Oharrak
19	HONDARRIBIKO IPARRALDEKO BEHE IBARRAK DRAINATZEA ITSASARGIRA DOAN ERREPIDEAREN EREMUAN	handia	Proiektua idatzia	Proiektua 2009an idatzi zen, Eusko Jaurlaritzaren URA Agentziarekin (Uraren Euskal Agentzia) batera, eta aurreikusi zen Eusko Jaurlaritzaren eta Txingudiko Zerbitzuaken artean egingo zela obra, bakoitzak % 50ean finantzatuta. Urte horietan krisi ekonomikoa hasi zen eta Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen esku hartze hori atzeratzea baliabide ekonomikoak izan arte.
20	HONDARRIBIKO IPARRALDEKO BEHE IBARRAK DRAINATZEA: HIRIGUNEKO IPAR-MENDEBALDEA	handia	Proiektua idatzia	Proiektua 2009an idatzi zen, Eusko Jaurlaritzaren URA Agentziarekin (Uraren Euskal Agentzia) batera, eta aurreikusi zen Eusko Jaurlaritzaren eta Txingudiko Zerbitzuaken artean egingo zela obra, bakoitzak % 50ean finantzatuta. Urte horietan krisi ekonomikoa hasi zen eta Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen esku hartze hori atzeratzea baliabide ekonomikoak izan arte.
23	PORTUA AUZOKO SANEAMENDUA: San Pedro kaleko saneamendua.	handia	EGINA	
25	IPARRALDE HIRIBIDEKO KOLEKTOREA	handia	EGINA	
27	ADUANA KALEKO SANEAMENDUA ETA UR BANAKETA	handia	EGINA	

2005 – 2015 HAMAR URTEKO PLANAREN BETETZE MAILA

Fitxa zkia.	ESKU HARTZEAK	Lehentasuna	Gauzatze maila	Oharrak
28	IBARLAKE SANEAMENDUA (2. FASEA)	handia	EGINA	
29	AMUTEKO SANEAMENDUA	handia	EGINA	
2	ARRIZURRETA – EUTP HODITERIA	handia ertaina	EGINA	
8	GUADALUPEKO HORNIDURA ETA URTEGIA	handia ertaina	Proiektua idatzia	Proiektua 2008an idatzi zen. Behin-behineko obra txiki bat egin zen Lujunia eta San Telmo urtegiak ur hornidura hobetzeko eta Hondarribiko goi eremuetara ur hornidura bermatu ahal izateko. Horrekin lehentasuna eman zitzaion Jaizkibel-Elordi hornidura obrari, larrialdietan ur hornidura bermatu ahal izateko.
16	GILTZEN KAMERA BERRITZEA IRUGURUTZETAKO ZENTRALEAN	handia ertaina	EGINA	

2005 – 2015 HAMAR URTEKO PLANAREN BETETZE MAILA

Fitxa zkia.	ESKU HARTZEAK	Lehentas una	Gauzatze maila	Oharrak
17	IRUGURUTZETAKO UR JAUZIKO HODITERIAK BERRITZEA	handia ertaina	EGINA	
21	ZUBI-MUSU ERREKAKO HIRI ARROAKO DRAINATZE SAREA EGOKITZEA	handia ertaina	EGINA	
26	MENDELUKO SANEAMENDUA: ZUBIETA HIRIBIDEA/ZUBI-MUSUKO BIRIBILGUNEA EREMUA	handia ertaina	EGINA	Zubieta hiribideko (Gibeleta) etxebizitzaren saneamendua egin ondoren, Zubi-Musuko biribilgunearen ondoan, Mendelu kaleko (GI-2134) eraikinen saneamendua besterik ez zen geratzen jasotzeko.
5	DOMIKOKO KANALA IRAZGAIZTEA	ertaina	% 83 EGINA	Ibilbidearen gehiengoa bukatu dira kanala irazgaizteko eta estaltzeko lanak. Guztira dituen 12 kilometroetatik 2 kilometro gelditzen dira bukatzeko.
9	UR HORNIDURA SAN TELMO URTEGIRA	ertaina	Proiektua idatzia	Guadalupeko urtegiaren Proiektuaren barnean dago obra hau, eta urtegi horrek hornituko du urez San Telmo urtegia. Guadalupeko urtegia ez zenez berehala egin behar, behin-behineko obra bat egin zen urtegiaren hornidura hobetzeko eta inguru horretako etxebizitzetara ur hornidura ziurtatzeko. Jaizkibelgo ur biltzeen bulkatzea egin behar zela aprobetxatuz, San Telmo urtegiara jarri zen hoditeriaren % 25.

2005 – 2015 HAMAR URTEKO PLANAREN BETETZE MAILA

Fitxa zkia.	ESKU HARTZEAK	Lehentas una	Gauzatze maila	Oharrak
11	IBAIETAKO ADAR NAGUSIA BERRITZEA	ertaina	% 30 EGINA	Urdanibia Plaza berritzeko Proiektuarekin plaza zeharkatzen duen zatia egin zen. Era berean, berritu egin da Santa Elena kaletik doan zatia Dunboako kanalaren gaineko zubitik Urdanibia plazaraino. Urtegitik Santa Elenako zubirainoko zatia gelditzen da egiteko.
13	BANAKETA SAREAREN SEKTORIZAZIOA	ertaina	EGINA	
18	IRUGURUTZETAKO ZENTRALEKO ERAIKINA ERABERRITZEA	ertaina	Aurreproiektu a idatzia	2012ko maiatzean “Irugurutzetako Uraren Interpretazio zentroa” Aurreproiektua idatzi zen Irugurutzetako zentraleko egungo eraikina eraberritzeko, eta eranskin bat eraikitzeke Uraren Interpretazio Zentro moduan museo gisa erabiltzeko eta ingurua urbanizatzeko. Eusko Jaurlaritzaren URA Agentziari kontsulta egin zitzaion Proiektu hori aurrera eramateko baimena lortzeari begira. Erantzun zuten errekaaren ibilgutik 5 metro baino gutxiagora ezin dela inolako esku hartzerik egin, eta horrenbestez, ezin izan zen Proiektu hori aurrera eraman
22	SANTA ENGRAZIAKO KOLEKTOREA	ertaina	% 70 partialki egina	Hainbat esku hartzetan Santa Engraziako kolektoreko zati batzuk egin dira, eta baita haren arroaren saneamendu bereizlea ere. Gaur egun Biteri kalea 19 eta Santa Engrazia kalearen arteko euri urak eta hondakin urak bereizteko sarea geratzen da egiteko. Proiektua idatzia dago.
3	LASTAOLAKO PUTZUEN HORNIDURA-ETAP	txikia	BAZTERTUA	Hainbat azterketa egin dira Lastaolako putzuen aprobetxamenduari eta haien bideragarritasunari buruz, eta azkenean atera den ondorioa izan da hori ez dela intereseko iturri alternatibo bat ur hornidurarako. Horregatik, baztertu egin zen esku hartze hau egiteko aukera.

2005 – 2015 HAMAR URTEKO PLANAREN BETETZE MAILA

Fitxa zkia.	ESKU HARTZEAK	Lehentas una	Gauzatze maila	Oharrak
10	IRUNGO ETA HONDARRIBIKO SAREAK ELKARTZEA	txikia	EGITEKO	
12	UR BANAKETARAKO ADARRAREN ZATIA ARABA KALEAN	txikia	Zati batean egina	KATEAKO kuartel zaharren ingurua urbanizatu zen bitartean, Araba kaleko 32. zenbakiaren pareraino jarri zen ura banatzeko adarra. Horrenbestez, puntu horretatik hasi eta Aranibarreko tunela arteko zatia geratzen da egiteko. Gaur egun lizitatzen ari da Araba kaleko zati bateko zoladura hobetzeko obra, eta haren barnean dago ur banaketarako adarraren instalazioa zati horretan. Harmugarrieta kaleko bidegurutzetik Elatzeta ikastetxea artekoa hartzen du zati horrek.
24	PORTUA AUZOKO SANEAMENDUA: Zuloaga eta Matxin de Artzu kaleetako saneamendua	txikia	EGINA	
4	JAMOTENEAKO HODITERIA ETA URTEGIA	Oso txikia	GERORAKO UTZIA	Obra hau interes txikikotzat hartu zen eta aurreikusitako azkenekoa da. Zerbitzuaren garapenak eta uraren eskaria jaitsi izanak baieztatu egin dute aurreikuspen hori. Une honetan epe luzera egiteko esku hartzetzat jotzen da, eta beraz, ez da planteatzen epe laburrean edo epe ertainean egiterik.
30	INBERTSIOAK SANEAMENDURAKO ETA UR BANAKETARAKO UDAL ESKU HARTZEETAN	jarraitua	EGINA	